

Ez utzi ezer trenean ahaztuta



Ana Mendia
EMAGINA

Arratsaldeko hirurak. Irun-Brinkola noranzkoa. Lau tokiko konpartimentuan eserleku huts bakarra, joder. Deseroso zait elkarren artean ezagun direnen alboan esertzea; ez baita erraza ordubetez etengabeen ez entzunarena egitea. Bai, badakit ez dela heziera onekoa norberarena ez den berriketaldirik entzutea, baina trenean bidaiatzen dudak bakoitzean inguruko bizitzak zeharo interesgarri begitantzen zaizkit eta, eutsiezina den indar batek eraginda, WiFi-a pizten dut.

Saiatu naiz eskuarte daramadan liburuan murgiltzen, zin dagit. Une batean, ordea, tunel-hotsaz kamuflatu den isilunea deigarri egin zait eta kuxkuxero senak jota amore eman dut. “Ba nik ez dut uste oso normala denik” bota du batek, azkenik. Kosta zait debatearen ardatzaz jabetzea, baina harrapatu dut: antza denez, kuadrilako lagun batek bularra ematen dio laster bi urte beteko dituen haurrari eta gainontzeko adiskideak kezkatuta daude; ama gaixoa ez omen da eta konturatzen tititik zintzilik egoteko koxkorregia dela alaba.

Zinez harrigarria da batzuen argudioek besteenak nola elikatzen dituzten entzutea. Konbentzimentu soziala lagun, itxurazko baretasunez hasi den solasaldia obra on guztien antzera joan da *in crescendo* eta, konturatzerako, lagunaren ustezko kezka auzo-lotsa bilakatu da. Adinak inozentzia bizio bihurtzen omen du, beharra kapritxo. Eta

hala bilakatu da, hilabete gutxiren buruan, ama ona zena hippy inkontziente. Azken geltokira heltzeaz, konpartimentu-kideek eztabaida ebatzi beste erremediorik ez dute izan. Apoteosikoa izan da: edozein tokitan titia atera eta bi urteko haurra bularrean jartzea aberrazio deklaratu dute.

Aberrazio hitzaren esanahiaren bila jo dut mugikorrean. “Normal eta logiko dirudienetik ateratzea” dio hiztegiak. Parekoen garunetaraino heldu nahian edo, gogora ekarri dut Osasunaren Munduko Erakundeak haurra lehen sei hilabete-tan bularrak soilik elikatzea gomendatzen duela, eta jaki osagarriez batera haurrak bi urte bete arte, gutxienez. Alegia, ama-esnearen iraungitze-data amak eta haurrak definitzen dute, ez beste inork. Eta ez dago zertan kezkatu; ez dut eza-gutzen amaren bularra eskatzen duen adoleszenterik.

Jakin nahi dut ama diren zenbat emakumek egin ote duten topo beren itzalarekin babesgabe, zenbati epaitu dizkieten beren erabakiak, zenbaten sentitu duten beren izatearen infantilizazioa. Ez ditut errudun egin nahi parean ditudan bagoi-kideak; amatasunak iparra lausotzen duten kutsatzaile gehiegi dituelakoan bainago: mito, juizio, gezur eta iruzur gehiegi. Horregatik, sekula ama izango banintz, poluzio horren kontziente izan nahiko nuke, “hippy inkontzienteak” bezain kontziente. “Pi-pi-pi. Ibilbidearen amaiera. Ez utzi ezer trenean ahaztuta”. ■

Heldulekuak



Edu Zelaieta
IDAZLEA

zenak kontrakoa iradoki arren, heldulekuak ez dira helduen lekuak: hurrek ere behar (eta me-rezi) dituzte heltzeko lekuak. Atzean utzi berri dituzun Eguberriek hori erakutsi dizute. Zure begi-belarriek harrapatutako elkarrizketan ikusi uste duzu semearen helduleku nagusi bat, amonarekin solasean ari dela: Papa Noel ez da existitzen, Yaya; Olentzero, bai!”. Bi egun geroago, heldulekuari gogor helduta, bere zalantzen eta deskubrimenduen berri eman dizu mutikoak, esnezko enegarren hortza erortzean: “Nire ustez, aita, Perez sagutxo ez da existitzen. Nola ekarriko du hori guztia sagutxo batek? Nik uste dut Olentzero dela Perez sagutxo”.

Izenaren iradokizuna, ordea, ez da guztiz baztertzekoa, eta uste baino errazago bihurtzen dugu helduok gu gobernatzen omen gaituen pentsamendu logikoa. Haurren kasuan bezalatsu, existentziaz (eta absentziaz) aritzearekin behar izaten ditugu batez ere heldulekuak. Eguberrietan soilik ikusten duzun izeba baten esanean aurkitu duzu pieza klasikoa: “Nik jainkoarengan sinesten dut, ez elizak edota erlijioek azaldu duten moduan... baina indar gorenaren batek egon behar du”.

Zuk, urte berrian ere, heldulekuetan sinesten segitzen duzu. ■